



Comisión Europea - Representación en España

DEPARTAMENTO DE PRENSA

Pº de la Castellana, 46 - 28046 MADRID - Tfno: 91 423 8020 Fax: 91 577 2923  
miguel.puente-pattison@ec.europa.eu - <http://ec.europa.eu/spain>

Bartzelona, 2009ko uztailak 2

## **Europako Batzordeak erabakia hartu du Erasmus ikasleentzako euskara ikastaro intentsiboak finantzatzeko**

***2010/2011 ikasturtetik aurrera, Europako Batzordeak Estatu Espainoleko hizkuntza koofizialen ikastaro intentsiboak finantzatuko ditu, hizkuntza hauek erabiltzen diren unibertsitateetara etorritako Erasmus ikasleentzat zuzenduak.***

[Etengabeko Ikaskuntzaren Programako](#) Batzordeak erabakia hartu du katalana, euskara eta galiziera barneratzeko Erasmus programan eskaintzen diren hizkuntza-ikastaro intentsiboen hizkuntza-zerrendan. Ikastaro hauek Europako Batzordeak finantzatzen ditu. Erabakia Espainiako Hezkuntza Ministerioaren eta beste estatu partaide guztien babesa izan du, eta neurria 2010-2011 ikasturtetik aurrera izango da indarrean.

Orain arte soilik Europako Batasuneko hizkuntza ofizialak barneratzen ziren zerrenda honen barnean (ingelesa, frantsesa, gaztelania eta alemanera salbu, gehien erabili eta irakasten diren hizkuntzak), eta hauekin batera islandiera, norvegiarra eta turkiera. 2006/07 ikasturtean unibertsitate jasotzailearen herrialdean egiten diren ikastaro hauetan 4000 ikasle baino gehiagok hartu zuten parte.

2006-2007 ikasturtean [Erasmus ikasle gehien jaso dituzten unibertsitate Europarren zerrendan](#) Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) aurki daiteke lehen 50en barnean, eta katalanari dagokionez zerrendako lehen 10 unibertsitateen artean ditugu Universitat de València (UV), Universitat Politècnica de València (UPV), Universitat Autònoma de Barcelona (UAB) eta Universitat de Barcelona (UB).

Informazio gehiago: Europako Batzordeko prentsa bulegoa (93 467 78 12)